

PRESBIDE BERRIKUNTZAK 2019KO OTSAILA

FINANTZATUTAKO INDIKAZIOAK DITUZTEN

MEDIKAMENTUAK (BISATUDUNAK) eta FINANTZATU

GABEKO INDIKAZIODUNAK

Badira medikamentu batzuk preskripzio baldintzen arabera direnak baina Ikuskaritzaren alde aurretiko bisatua eskatzen dutenak, Osasun Sistema Nazionalak finantzatzeko. Horietako zenbaiten kasuan, haien fitxa teknikoan onartutako indikazioen artean, **ikuskaritzaren bisatu** bidez finantzatu daitezkeen indikazioak daude, baita finantzatu ezin diren beste batzuk ere. Bi egoera ematen dira, beraz:

- Bisatu bidez finantzatu daitezkeen indikazioak nagusi diren medikamentuak (**ahozko zuzeneko antikoagulatzaileak** eta beste). Orain arte, Presbidek ez zuen onartzen finantzatu gabeko indikazioetarako preskripzioa (eta errezetak eskuz egitera behartzen zuen), baina oraindik aurrera, aukera hori emango da, dokumentu honetan azaltzen den eran.
- Bisatu bidez finantzatu daitezkeen indikazioak gutxienekoak diren medikamentuak (laktulosa, malko artifizialak, kodeina...). Presbidek aspalditik ematen du aukera preskripzioa egiteko, bai finantzatutako indikazioetan, bai ez finantzatutakoetan. Beste ezer adierazi ezean, finantzatu gabe bezala agertzen dira, eta fakultatiboak berak sakatu behar du bisatuaren aukera, finantzatzea ahalbidetuko duen txosten kliniko aktibatzen. (esteka [Prescripción de medicamentos financiados por indicación. Julio 2015](#)).

FINANTZATU GABEKO INDIKAZIOAK DITUZTEN BISATUDUN

MEDIKAMENTUEN PRESKRIPZIOA

Aurrerantzean aukera egongo da Presbideren bitartez indikazioen preskripzioa egiteko “Finantzatuak” zein “Ez Finantzatuak” direnean, hauen kasuan: zuzeneko ahozko antikoagulatzaileak (dabigatran, ribaroxaban, apixaban, edoxaban), arreta-faltaren eta hiperaktibitatearen sindromea dutenentzako medikamentuak (lisdexanfetamina, guanfazina) eta sulodexida.

Medikamentu horien bilaketa “Finantzatuak” iragazkia erabilita egiten da, oraindik ere.


Preskripzio pantailan “Bisatua behar du” laukia markaturik egongo da beste ezer adierazi ezean, baina medikamentu hauen kasuan editatu ahal izango da. Hona hemen preskripzio motaren arabera jarraitu beharreko urratsak:

Preskripzioa Finantzatutako indikazio baterako:

Orain arte bezala, preskripzioa eta txosten kliniko sinatuz, preskripzioa “bisatua emateko” azalduko da. Errezeta Elektronikoaren sistemaren barne, preskripzio hauek “Finantzagarriak” dira, behin Ikuskaritzaren bisatua lortuta.

Preskripzioa Finantzatu GABEKO indikazio baterako:

“Bisatua behar du” laukian marka kendu behar da. Horrela, bada, Presbidek ez du txosten klinikoaren erlaitza erakutsiko, eta preskripzioarekin aurrera egin ahal izango da, bisatua eskatzen ez duten gainerako medikamentuekin bezala.



Errezeta Elektronikoen sistemaren barne, preskripzio hauek “Ez finantzagarriak” dira. Pazientea zuzenean joan ahalko da farmazia-bulegora medikazioa jasotzera (errezeta inprimatzeko beharrik gabe), medikamentuaren zenbateko osoa ordainduz. Errezetak inprimatzen badira, horiek “Ez Finantzatuak” hitzekin aterako dira.

Preskripzio horiek Ez finantzagarriak bezala identifikatuko dira (€ ikurra):



Adh.	Rev/Fin	Tipo	Amb.	Producto o conjunto DOE	DOE	Principios Activos
€	03/03/2019	A	E	Rivaroxaban 10mg 30 Comprimidos Recubierto	✓	Rivaroxaban

SULODEXIDA. Egoera:

2019ko otsailaren 1etik aurrera beharrezkoa da ikuskaritzaren bisatua Sulodexidaren (ATERINA®; DOVIDA®) preskripzioetan, OSNren kargura banatu ahal izateko.

Fitxa teknikoan onartutako indikazioen artean, bakarrik finantzatuko da bisatu bidez zainetako gutxiegitasun kronikoaren tratamendurako, soilik CEAP sailkapenaren C3* C6ra bitarteko estadioetan dauden pazienteentzat. Tratamenduaren gehieneko iraupena 3 hilabetekoa da.

Tratamendu hasierak. Presbidek berez hartuko du finantzagarritzat, bisatu bidez. Finantzatutako tratamenduaren gehieneko iraupena 3 hilabetekoa denez, “Akutua” motako preskripzioa erabiltzea gomendatzen da. Finantzatu gabeko indikazioetarako, ikusi aurretik emandako jarraibideak.

Otsailaren 1a baino lehenago sortutako preskripzio aktiboen luzapenak/aldaketak. Preskripzio hauek berez, beste ezer adierazi ezean, ez finantzagarritzat hartuko dira.

Fakultatiboak pazientearen egoera klinikoa finantzatutako indikaziotzat har litekeela uste badu, “Bisatua behar du” botoia sakatu ahal izango du, eta txosten klinikoa betetzeko aukera emango zaio. Gogoan izan tratamenduaren gutzirako iraupena ezin dela 3 hilabetetik gorakoa izan.